

URRIAREN 1ean, ADINEKOEN NAZIOARTEKO EGUNA



Nazio Batuen Batzar Nagusiak, 1991ko abenduan, "ADINEKOEN NAZIOARTEKO EGUNA" izendatu zuen urriaren 1a, eta pertsona horiek beren eskubideei eusteko lan egitera bultzatu zituen gobernuak eta gizartea, oro har. Aurten, pandemiaren ondorioz, ezin izan da Kuadrillak antolatutako ADINEKOEN TOPAKETA egin. Horregatik, aipamen berezia egin nahi diogu gure gizarteko kolektibo garrantzitsu eta berezi horri. Adinekoak dira une honetan gehien sufritzen ari direnak, COVID-19aren ondorioengatik ez ezik, baita osasun-krisi egoera horrek ekar ditzakeen isolamenduak, bakardadeak, zaurgarritasunak edo bazterketa-arriskuak eragindako inpaktu emozionalagatik ere. Aiarako Kuadrillak bat egin du Arabako Foru Aldundiak (AFA) gure lurraldean adinekoen bizikaltatea eta eskubideak babesteko eta hobetzeko egin duen ahaleginean eta egiten ari den apustuan.

